



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa

**Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren
LAGUNTZEI ETA DIRU LAGUNTZEI APLIKATU BEHARREKO JOKABIDE KODEA ETA
ZUZENTASUN INSTITUZIONALEKO ESPARRUA**

Donostia, 2018ko xxxxxxxxaren xx(e)an

JOKABIDE KODEA ETA ZUZENTASUN INSTITUZIONALEKO ESPARRUA, FORU ADMINISTRAZIOAK ETA HAREN SEKTORE PUBLIKOKO ERAKUNDEEK ENPRESA ETA ERAKUNDE PRIBATUEI EMANDAKO LAGUNTZEI ETA DIRU LAGUNTZEI ZEIN SUSTAPEN NEURRI HORIEN ONURADUN DIREN BESTE ORGANISMOEI APLIKATU BEHARREKOA

ZIOEN AZALPENA

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2016ko martxoaren 1ean Gobernu Kontseiluak hartutako erabakiaren bitartez, foru administrazioari berari zein haren sektore publikoko erakundeei aplikatzeko Erakundearen Zuzentasun Sistema onartu zuen. Sistema horrek bat egiten du Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundeak (ELGE) erakundearen barnean oro har zuzentasun politika babestearren mantendu duen kontzepzioarekin. Izan ere, sistema horren bidez sendotu egin nahi da erakunde publikoen azpiegitura etikoa eta, kasu honetan, Foru Aldundiarena zein sektore publikoan dituen erakundeena. Aipatu erabakian azaldu zen moduan, helburua zuzentasun politika bat bultzatzea zen, ez besterik, ezen “ legea betetzera mugatu ordez, horren bidez aurrerapausoak eman beharko lirateke erakundearen zuzentasun esparrua eraikitze eta eraginkor bihurtzeko; baita kudeaketa publikoan jardura egokiak aplikatu eta garatzeko ere, era horretan Administrazioaren errendimendua eta herritarrek jasotzen dituzten zerbitzuak hobetzeko”.

Gipuzkoako Aldundiak bultzatzen duen zuzentasun ikuspegia ez da, baina, barne dimentsio batera mugatzen baizik eta, gipuzkoar gizartera zabaltzeko nahi duela, ahalik eta irismen handienez. Izan ere, foru gobernu hau bere lehen pausoetatik bultzatzen ari den *Gobernantza Etikorako* politika erakundearen zuzentasunaren kanpo proiektzio batean oinarritzen da, zeharo bat eginez, horrenbestez, azken aldi honetan ELGE bera bultzatzen ari den lan ildoekin, honakoak baitira: zuzentasun instituzionala ezin da Foru Administrazioaren eta haren mendeko sektore publiko instituzionalaren barnean itxita geratu, gizartera ere igaro behar baitu, gizarteko elkarte ehuna, erakunde eta enpresak, kontratazio publikoa eta Gipuzkoako herritar guztiak ere bilduta. Horrela, Instituzioak erantzukizun kolektiboaren zentzua bultzatzen du, jendearen mentalitatea blaituz horren bitartez, herritarren kulturen aldaketa eraginez eta arauak barnera ditzagun lagunduz; eredugarritasuna azken batean, gizartera igaro ahal izateko funtsezko elementutzat.

2.- Administrazio publikoek garatzen duten sustapen jardura gastu publikoaren modalitate garrantzitsuetako bat da, ez dago zalantzarik, eta hartzaile ditu erakunde pribatu edo publikoak, enpresak, gobernu kanpoko erakundeak, eta zenbait motatako elkarte eta erakundeak, besteak beste. Beraz, inork ezin du aiantzi diru laguntza eta laguntza esparru horretara bideratzen diren baliabide publikoen garrantzia, ezta horien gainean kontrola zertu beharra ere. Sustapen jardura horren helburua ere begi-bistakoa da: esparru publikotik zenbait jardura pribatu bultzatu, piztu edo sustatu nahi dira eta, batzuetan, jardura publikoak ere bai, izan ere diru laguntza edo laguntza horien bitartez lagundu egiten dela

Gipuzkoako Lurralde Historikoko politika publikoak betetzen. Honen jatorria gure lurraldeak duen kolaborazio publiko-pribatuko ohituran dago, erronka sozialei aurre egiteko partekatutako mekanismo bezala. Eremu publikoaren eta pribatuaren arteko lotura sendoak aintzat hartzen dituen perspektiba erlazional bat, demokraziaren kalitatea areagotzen duena eta ez bakarrik zerbitzuen kalitatea edo malgutasuna antolakuntzan. Honek adierazten du instituzioak modu demokratikoagoan kudeatzea, gertuagoa, efikazagoa eta legítimoagoa, diru laguntzen jarduera gobernatzeko era horren ardatz delarik.

Beraz, zuzentasunaren eta oinarritzko eskubideen errespetuaren ikuspegitik zein beste balio eta printzipio batzuenetik, garrantzitsua da laguntza eta diru laguntza horien onuradun diren erakunde eta enpresa edo organismo horiek guztiek diharduten modua. Gipuzkoako herritarren ikuspegitik, entitate, enpresa eta organismo onuradun horiek funts publikoen hartzaile dira, eta lagundu egiten dute interes publikoak asetze horretan. Horrenbestez, parte hartu behar dute, era berean, Gipuzkoa eredugarria eraikitzeko proiektu kolektiboan, hots, erakundearen zuzentasun politika ezartzeko prozesu honetan gidari dugun eginkizunean.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publiko instituzionalaren Erakundearen Zuzentasun Sistema ez legoke osorik, zuzentasun instituzionaleko esparrua eta Jokabide Kodea zehaztu gabe; horiek biak aplikagarriak izan behar zaizkie Foru Aldundiaren edo haren sektore publiko instituzionalaren foru diru laguntzen eta laguntzen hartzaile diren erakunde, elkarte eta enpresei zein beste erakunde onuradunei, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, zehazki 2. artikuluan (diru laguntza kontzeptua) eta 3. artikuluan (aplikazio eremua) aurreikusten dituen baldintzetan.

Diru laguntzen arloko jardueraren garrantziak, are kontuan harturik baliabide publikoak direla eta horiei lehentasun politiko eta aurrekontu aldetikoak ezartzen zaizkiela zenbait esparrutan, eskatzen du Foru Administrazioak eta haren sektore publikoak, diru laguntzak eta laguntzak jasotzen dituzten entitate edo enpresek bezalaxe, diru laguntzei buruzko legedian eta araudian jasotzen diren printzipio orokorrak betetzea; baina, horretaz gain, eskatzen du Administrazioaren beraren edo hartzaile diren entitate eta enpresen jarduerak ere bere baitan eramatea Foru Aldundiaren eta, oro har, haren sektore publikoko entitateen zuzentasun esparru eta kodeen inspirazio diren balioak eta, hala dagokionean, jokabide arauak.

Alabaina, diru laguntzen bitartez garatzen den sustapen jarduerak nabarmen egin du gora azken urteotan, laguntza motekin eta pertsona eta erakunde onuradunen kopuruarekin batera. Hala, egoera konplexu eta bideratzen zaila dugu esku artean. Laguntza eta diru laguntza mota guztiak eta 3/2007 Foru Arauak aurreikusten dituen baldintzetan diru laguntzak eta laguntzak jasotzen dituzten entitate, enpresa eta bestelako onuradun guztiak jaso nahi izateak zailtasun itzelak sorrarazten ditu kudeaketan. Eta, hala eta guztiz, diru laguntzen bitartez zertzen den sustapen jarduera hori, foru sektore publikoaren jarduera finantzarioaren alderdi garrantzitsua izaki, ezin da Erakundearen Zuzentasun Sistematik kanpo geratu. Baina Administrazioak ez du zertan beti eremu guztietara iritsi behar, gai izan behar du momentuko beharretara eta egoera sozialera egokitzera eta egokitzapen honek eskatzen duen baliabide

eta esfortzuak lehenetsi behar ditu. Horregatik, Jokabide Kode hau mailaka aplikatuko zaie laguntzak eta diru laguntzak jasotzen dituzten entitate eta enpresei, eta hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren urteko aurrekontuetan jasotzen diren laguntza eta diru laguntza izendunekin hasten da, politikoki arbitrarioagoak kontsideratu daitezkeenak eta horrexegatik eredua ematen hasi behar dutenak. Kodearen barneratze prozesuak aurrera egin ahala inplementazioak ere aurrerapausoak egin ahal izango ditu.

3.- Argi dago diru laguntzei aplikatu beharreko Jokabide Kode eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparru honen dimentsio garrantzitsua da, ez baina bakarra, ez delako eta ezin delako izan. Gainera, diru laguntzen arloko jardueraren beraren barne dimentsio ukaezina ere badago eta ezin dugu, inolaz ere, bazterrean utzi, Erakundearen Zuzentasun Sistemarekin dituen loturak begi-bistakoak baitira oro har.

Dimentsio biak dira, beraz, gizarte osora iristeko bidea. Diru laguntzei aplikatu beharreko Jokabide Kodeak eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparruak goitik behera bermatzen dituzte aipatu jarduerak gida dituen printzipio orokorrak, eta, zehatzago esanda, publizitate eta gardentasuna, konkurrentzia eta objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, eta eraginkortasuna eta efizientzia. Eta printzipio orokor horiek goitik behera betetzeak osagarri izan behar ditu laguntzei eta diru laguntzei aplikatu beharreko Jokabide Kodeak eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparruak zehazten edo identifikatzen dituzten balio eta jarduera printzipioak; hauek, kasu batzuetan, dagoeneko jasotzen diren beste balio eta printzipio batzuen osagarriak izango dira, baina beste batzuetan aipatu balio eta printzipioen zehaztapen edo garapena izan daitezke, hain zuzen diru laguntzen arloko jardueraren espezifikotasuna hobeto babestearren foru sektore publikoko langileak (bai foru kargu publikodunak bai funtzionarioak) jarduera horretan ari direnean.

Beraz, Zuzentasun Esparru honen dimentsio bakoitza argi eta garbi ikusi behar dugu. Barne dimentsio edo dimentsio endogenoan, sendotu egiten du Foru Administrazioan eta horren sektore publikoan, laguntzak eta diru laguntzak emateko eta gauzatzeko prozeduretan, lan egiten duten organo eta pertsonen jarduera objektibo, garden, inpartzial eta garantista; proiektio exogeno edo kanpo proiektioan, berriz, balio eta printzipio multzo baten bitartez sartu egin nahi du diru laguntza edo laguntza horien hartzaile direnek eskakizun horiek betetzea.

I.- LAGUNTZEI ETA DIRU LAGUNTZEI APLIKATU BEHARREKO ZUZENTASUN INSTITUZIONALEKO ESPARRUA

1.- Kontzeptua

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoko entitateen Erakundearen Zuzentasun Sistemak, laguntzen eta diru laguntzen arloan, helburu, balio eta printzipio batzuk ditu egituratzaile, berme prozedura eta erakundeekin eta gardentasunerako, kontuak emateko eta ebaluaziorako mekanismoekin batera. Horien guztien helburua da zuzentasunaren kultura finkatzea eta azpiegitura etikoa eraikitzea, bai Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren kasuan bai laguntza eta diru laguntza horien onuradun diren, funts publikoak jasotzen dituzten eta Kodean ezartzen den aplikazio eremuan sartzen diren entitate, enpresa edo organismoen kasuan.

2.- Xedea

Laguntzei eta diru laguntzei aplikatu beharreko Zuzentasun Institutuzionalaren Esparruaren helburua da prozedura horietan parte hartzen duten foru sektore publikoko kargudun eta langile guztien funtzio publikoetan, eta laguntza edo diru laguntzen onuradun diren entitate, enpresa edo organismoen beren jardueran, zuzentasunaren kultura garatzea eta sustatzea, bai ikuspegi endogenoa bai exogenoa jorratuta, azpiegitura etikoa egituraturik, modu eraginkorrean, gipuzkoar gizarte eredugarri baten neurrira. Horrela aurrea hartu nahi zaie Administrazio Publikoaren edo baliabide publiko horien onuradun diren entitate, enpresa edo organismoen osotasun, objektibotasun, efizientzia, gardentasun eta inpartzialtasun irudiari kalte egin diezaioketen jokabide edo jardunbide desagokiei, hain zuzen ere azken batean sendotzearen herritarrek erakunde publikoetan eta baliabide publikoen erabilera efiziente, zuzen eta duinean duten konfiantza.

3.- Aplikazio eremua

3.1.- Jokabide kode honek eta Zuzentasun Institutuzionaleko Esparruak bi dimentsio dituzte laguntzen eta diru laguntzen esparruaren gaineko bere proiektzioan: endogenoa bata eta exogenoa bestea.

3.2.- Jokabide Kodearen lehen dimentsioak izaera endogenoa du. Zuzentasun Institutuzionaleko Esparru honen aplikazio eremu endogenoa foru sektore publikoko kargudun edo langileen gainean proiektatzen da, hots, foru araudi aplikagarrian eta horri dagozkion kodeetan ezartzen denarekin bat onuradun diren entitate, enpresa eta bestelako organismoei zuzendutako laguntza eta diru laguntzak bultzatu, kudeatu, kontrolatu eta ebaluatzeko prozesuetan parte hartzen duten kargudun edo langileen gainean.

3.3.- Jokabide Kodearen bigarren dimentsioak izaera exogenoa du. Zuzentasun Institutuzionaleko Esparru honen aplikazio eremu exogenoa Gipuzkoako Foru Aldundiak eta haren foru sektore

publikoa osatzen duten entitateek ematen edo kudeatzen dituzten laguntzen eta diru laguntzen onuradun diren entitate, enpresa eta bestelako organismoen gainean proiektatzen da.

3.4.- Jokabide kode eta Zuzentasun Institutuzionaleko Esparru hau betetzeko konpromisoa baldintza izango da diru laguntzak eta laguntzak arautzeko oinarrietan zein horietarako kasuan kasuko deialdietan.

3.5.- Norgehiagokarik gabeko laguntza edo diru laguntza zuzenak jasotzen dituzten entitate edo enpresen kasuan, Jokabide kode eta Zuzentasun Institutuzionaleko Esparru honi atxikitzea nahitaezkoa izango da laguntza edo diru laguntza eman eta jaso ahal izateko; eta horrelaxe jasoko du laguntza emateari buruzko ebazpenak berak.

3.6.- Kode honetako balio edo printzipioak larriki edo behin eta berriro urratzen badira bai onuradunen bai kasuan kasuko entitateetako gobernu organoetako arduradunen jardura edo jokabideen bitartez, ulertuko da ez direla bete ezarri edo onartutako betekizunak, eta horrenbestez laguntzak edo diru laguntzak itzuli beharra ezarri ahal izango da, hain zuzen ere 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, diru laguntzei buruzkoak, ezartzen dituen baldintzetan.

4.- Foru diru laguntzei eta laguntzei aplikatu beharreko zuzentasun instituzionalaren arloko zabalkunde eta prestakuntza

4.1.- Foru Administrazioak eta haren sektore publikoa osatzen duten entitateek, laguntzak eta diru laguntzak izapidetzen badituzte, zabalkunde eta prestakuntza sistemak ezarri beharko dituzte, Jokabide Kode honek jasotzen dituen balio, printzipio eta arauak dagokienez.

4.2.- Zehazki, prestakuntza programak garatu eta zabalkunde kanpainak egingo dira, aipatu kudeaketa eta emate prozeduren ardura duten foru sektore publikoko kargudun eta langileen artean zein laguntzen eta diru laguntzen hartzaile potentzialen artean Zuzentasun Institutuzionaleko Esparru honen eta dagokion Jokabide Kodearen gaineko ezagutza eraginkorra lortu eta barneratzearen.

4.3.- Bereziki, Foru Administrazioak eta haren sektore publikoko entitateek Esparru Institutuzional eta Jokabide Kode honi buruzko aipamenak jasoko dituzte diru laguntzen plan estrategikoan, oinarri arautzaileetan eta Esparrua aplikagarria den laguntza eta diru laguntza bakoitzaren deialdian.

5.- Alderdi etikoak edo, hala dagokionean, kexak bideratzeko bide, zirkuitu edo prozedurak sortzea

5.1.- Foru Administrazioak ezarriko ditu kode honetan jasotzen diren balio, printzipio edo arauetako batzuk ez betetzearen inguruan planteatzen daitezkeen kontu etikoak, arazoak edo dilemak, eta baita, hala dagokionean, pertsona ukituek edo hirugarren pertsonen planteatzen ditzaizkaten kexak ere, izapidetzeko prozedurak, kanalak edo bideak.

5.2.- Prozedura, kanal edo bide horiek bitarteko elektronikoak erabiliko dituzte, nagusiki.

5.3.- Egiten den ahozko kontsulta ororen edukia berariaz jasota lagako da, idatziz, eskatuz gero konfidentzialtasuna mantenduz betiere.

6.- Berme organoa

6.1.- Erakundearen Etika Batzordeak aztertuko ditu organo eskudunak izapidetzen dituen diru laguntzak eta laguntzak emateko, kudeatzeko, kontrolatzeko edo ebaluatzeko prozeduretan Foru Administrazioaren zerbitzuko kargu publikodunek eta langileek, edo foru sektore publikoko profesionalek, erakusten duten jarduera edo omisioa dela-eta pertsona ukituek edo hirugarren pertsonak Jokabide Kode honen aplikazioaren inguruan aurkezten dituzten dilemak, gaiak, kexak edo salaketak.

6.2.- Erakundearen Etika Batzordeak aztertutako jardueretatik erantzukizun administratiborik edo, hala badagokio, penalik ondorioztatzen bada, berehala emango zaie aditzera organo eskudunei, hala badagokio kasuan kasuko prozedurak abiaraz ditzaten.

6.3.- Erakundearen Etika Batzordeak esku hartu ahal izango du, zalantzarik sortzen bada laguntza edo diru laguntzaren baten onuraduna den entitate, enpresa edo organismo jakin bat Kode honetan adierazten diren balio orokor edo espezifikoei egokitzen ote zaien. Erakundearen Etika Batzordeak egiten duen txostena organo eskudunari helaraziko zaio, erabaki egokia hartu ahal izatearren.

6.4.- Kode honetan ezarritako funtzioak garatu ahal izateko, Erakundearen Etika Batzordeak, bere eztabaida-eginkizunak baliaturik, kanpoko aholkularitza-pertsonalari deitu ahal izango dio, edo arlo honetan gaitasun teknikoa duen Foru Administrazioaren zerbitzuko langileei, hain zuzen azertu behar diren gaien inguruan duten iritzia ezagutzeko. Era berean, txosten idatziak eskatu ahal izango dira, eta horiek behar bezala balioetsiko ditu Batzordeak, behin betiko erabakirako egiten duen proposamenean.

6.5.- Ikusiz gero kode honetan jasotzen diren aurreikuspenak ez direla bete, Erakundearen Etika Batzordeak ondoko neurriak proposatu ahal izango ditu:

a) Foru kargu publikoduna baldin bada, balio, printzipio, jokabide arau edo jardunbide arauak betetzen ez diren kasuan Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikodunen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide egokien Kodean jasotako aurreikuspenak aplikatu ahal izango dira.

b) Foru sektore publikoko langileak baldin badira, balio, printzipio, jokabide arau edo jardunbide arauak betetzen ez diren kasuan Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodean jasotako aurreikuspenak aplikatu ahal izango dira.

c) Foru Administrazioak eta haren sektore publikoko entitateek eman edo kudeatzen dituzten laguntzen eta diru laguntzen onuradun diren entitate, enpresa eta beste organismo onuradunak baldin badira, Erakundearen Etika Batzordeak txostena igorriko dio laguntza edo diru laguntza eman duen organoari, egoki iritzitako neurriak har ditzan. Kodea

urratzea eragin duen jokabidearen larritasunaren arabera, jokabideagatiko gaitzespen hutserako proposamenetik laguntza edo diru laguntza baliogabetzeko proposameneraino iritsi ahal izango da txostena.

d) Edonola ere, Erakundearen Etika Batzordeak, helarazten zaizkion gaien arabera, proposamena egin ahal izango dio organo eskudunari, diru laguntzak arautzeko oinarrien kudeaketa hobetzeko zein diru laguntza deialdietarako neurri zuzentzaile orokorrak sartzeko, eta bidezko diren arau aldaketak proposatzeko. Horren guztiaren helburua Ereduzko kode eta Zuzentasun Institutuzionaleko Esparru honetan xedatuaren erabateko eraginkortasuna babestea izango da.

7.- Diru laguntzei aplikatu beharreko Zuzentasun Esparruaren garapena ebaluatzeko eta jarraitzeko sistema

7.1.- Erakundearen Etika Batzordeak egingo du Esparruaren garapenaren ebaluazioa eta jarraipena, bertan ezartzen diren edukiak aldatzeko proposamenei, programa proposamenei edo prestakuntza ekintzei dagokien guztian. Batzordeak egingo du, halaber, Kodearen aplikazioaren urteko emaitzen ebaluazioa, eta horrez gain urtero Gobernu Kontseiluari proposatuko dizkio Zuzentasun Institutuzionaleko Esparrua egokitzeko beharrezko diren neurriak.

II.- LAGUNTZEI ETA DIRU LAGUNTZEI APLIKATU BEHARREKO JOKABIDE KODEA

A) DIMENTSIO ENDOGENOA: FORU SEKTORE PUBLIKOKO KARGUDUNAK ETA PERTSONALA

1.- Xedea

1.1.- Kode honen dimentsio endogenoak osatu egiten ditu foru sektore publikoko kargudun eta pertsonalarentzako jokabide balioak eta arauak, jarduera printzipio eta arauekin batera, hain zuzen ere diru laguntzen eta laguntzen kudeaketa, kontrol eta ebaluazioari dagokion guztian kasuan kasuko kodeek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoko entitateen Erakundearen Zuzentasun Sistemaren partetzat, ezarriak.

1.2.- Diru laguntzen eta laguntzen arloan balioak, printzipioak, jokabide arauak eta jarduera arauak betez, foru sektore publikoko kargudunek eta langileek aktiboki laguntzen dute Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoko entitateen azpiegitura etikoa sendotzen. Gainera, horren bitartez bere instituzioekiko konfiantza sendotzen dute eta, era berean, bermatzen dute finantza, gizarte eta kultura aldetik sentikortasun berezikoa den esparru publiko batean —horixe baita diru laguntza eta laguntza bitartez funts publikoak banatzearena— arduradun publiko aipatuen jarduerak goitik behera betetzea kasuan kasuko kodeetan jasotzen diren balioak eta printzipioak, jokabide eta jarduera arauekin batera.

1.3.- Kode honen dimentsio endogenoan jasotzen diren jarraibide eta orientazioek erabat baliagarri izan behar dute, orientazio profesionaleko gida gisa, kudeaketa, kontrol eta ebaluazioaren arloan, laguntzak eta diru laguntzak emateko prozeduretan parte hartzen duten foru sektore publikoko kargudun eta langile guztientzat, hain zuzen ere laguntza eta diru laguntza horiek emateko prozesuetan kolektibo horien profesionaltasuna, inpartzialtasuna, gardentasun eta objektibotasuna, efizientzia eta eraginkortasuna sendotzearen.

2.- Aplikazio eremua

2.1.- Ereduzko kode honen dimentsio endogenoa diru laguntzak eta laguntzak esleitzeko prozeduretan parte hartzen duten foru sektore publikoko kargudun eta langile guztiei aplikatuko zaie.

2.2.- Printzipio orokorrak eta diru laguntzei aplikatu beharreko arauditik ondorioztatzen diren betekizunak errespetatu eta goitik behera betetzeaz gain, kode honetan eta foru kargu publikodunei eta foru sektore publikoko langileei aplikatu beharreko bestelako kodeetan ezartzen diren balioak, printzipioak eta jokabide eta jarduera arauak betetzea bermatu beharko dute.

2.3.- Era berean, beste araudi batzuetan arautzen diren baina Kodearen xedean eragin berezia duten bestelako obligazioak errespetatu beharko dituzte, hala nola gardentasun-publizitate aktibotik eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidetik ondorioztatuak; 2/2015 Foru

Arauak, martxoaren 9koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, ezartzen duen genero berdintasunaren printzipioa; eta aurrekontu egonkortasunari eta finantza jasagarritasunari buruzko araudia.

3.- Izaera

3.1.- Kode honek, bere dimentsio endogenoan, prebentzio eginkizuna du, eta baita orientatzailea ere, bere zuzendaritza-jardueretan edo jarduera profesionalean diru laguntzak eta laguntzak esleitzeko prozeduren esparrua lantzen duten foru sektore publikoko kargu publikodunen eta langileen jardueraren gainean. Eta, arlo horretan, Foru Administrazioaren eta haren sektore publiko instituzionaleko entitateen kultura etikoa hobetzera zuzenduta dago, ez beste ezertara.

3.2.- Jokabide Kode hau, bere dimentsio endogenoan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Zuzentasun Sistemaren elementuetako bat da, eta nahitaez betetzekoa gainera, testu honetan ezartzen diren baldintzetan, foru kargudun eta enplegatu publiko guztientzat.

4.- Foru sektore publikoko kargudun eta langileentzako balio, printzipio eta jarduera arauak, laguntzak eta diru laguntzak kudeatzeko prozeduretan

4.1.- Foru Administrazioaren eta haren sektore publikoko entitateen zerbitzuko kargudun eta langileek, diru laguntzak eta laguntzak kudeatzeko prozeduretan parte hartzen dutenean, bere jokabide eta portaera profesionala aplikagarri zaizkien kodeetan eta haietan aurreikusitako baldintzetan arautzen diren balio eta printzipioetara egokitzeaz gain, hemen aipatzen diren balio, printzipio eta jarduera arauetara egokitu beharko dute:

1) Berezik zainduko dute diru laguntza eta laguntza guztiak publizitate, norgehiagoka eta berdintasun printzipioekin bat ematea, legez aurreikusitako salbuespenak direnean izan ezik.

2) Edonola ere, era murriztailean interpretatuko dituzte indarrean den araudiak norgehiagokarik gabeko diru laguntza zuzenak ematea ahalbidetzen duen kasuak.

3) Diru laguntzak emateko proposamenen ardura duten balioespen batzordeek osaketa teknikoa izango dute funtsean, eta batzordekideen artean ez da kargu publikodunik ez sindikalik izango, salbuespen kasuetan izan ezik. Behin-behineko langileak ezingo dira balioespen batzordeetako kide izan.

4) Edonola ere, publizitate aktiborako betekizunetatik ondorioztatzen diren eskakizunak betetzeaz gain, foru sektore publikoko kargudun eta langileek diru laguntza eta laguntza guztietarako baldintza, irizpide eta eskatze eta emate prozeduren publizitatea bermatuko dute.

5) Era berean, publiko egingo da diru laguntza edo laguntza horien onuradun diren pertsona, enpresa edo entitateei buruzko balioespen bereizia, gardentasun, inpartzialtasun eta objektibotasun printzipioak bermatzearren.

6) Irizpide objektiboak ezarriko dira diru laguntzak eta beste laguntza publiko batzuk ematera begira, batez ere irizpide kuantitatiboak, kasuan kasuko sustapen neurriak duen xedearen arabera.

7) Erabat bermatuko da diru laguntzak eta laguntzak gauzatzearen gaineko ondorengo kontrola, batez ere baliabide publiko erabilgarriei eman erabilerari eta horren justifikazioari dagokienez. Organo kudeatzaileek, une oro, datu horiek egiaztatzeko beharrezko dokumentazioa eskatu ahal izango dute.

8) Era berean, foru sektore publikoko kargudun eta langileek ez dute parte hartuko diru laguntzak edo laguntzak kudeatzeko prozesuetan, batez ere balioespen edo proposamen batzorde teknikoetan, eta ez dute prozesu horien inguruko ebazpenik emango, prozesu horietan parte hartzen duten entitate edo elkarteetako kideak direnean, edo odolkidetasunagatiko edo ezkontza bidezko ahaidetasunagatiko bere bigarren mailarainoko senideek prozesu horietan parte hartzen dutenean.

9) Foru sektore publikoko kargudunek eta langileek ardura bereziz errespetatu beharko dituzte interes gatazkei, bai zuzenei zein inplizitu edo isilbidezkoiei, aplikatzekoak diren jokabide arauak, kasuan-kasuan aplikagarriak zaizkien jokaera kodeetan jasotzen diren baldintzetan, eta Erakundearen Etika Batzordeari aditzera emango diote kontu horien gainean sortzen den gorabehera edo planteatzen den dilema, zalantza edo gai oro.

10) Foru sektore publikoko kargudun eta langileek pertsona, entitate eta talde politiko edo sindikatu guztiei bermatuko diete diru laguntzei eta laguntzei buruzko espedienteak eta informazioa eskuratzea, helburu horietara bideratzen diren baliabide publikoen aplikazio egokia egiaztatzen duten txostenak eta bestelako informazioak barne. Informazio publikoa eskuratzeko eskubideak arlo horri buruzko foru araudiak ezartzen dituen mugak izango ditu, arloko oinarritzko legediak jasotzen dituen gain.

B) DIMENTSIO EXOGENOA: LAGUNTZAK ETA DIRU LAGUNTZAK JASOTZEN DITUZTEN ENTITATE, ENPRESA ETA ORGANISMOAK**1.- Xedea**

1.1.- Jokabide Kode honen dimentsio exogenoak jaso eta definitu egiten ditu Zuzentasun Institutuzionaleko Esparruaren barnean, laguntzen eta diru laguntzen arloan, laguntza edo diru laguntza horien onuradun diren entitate, elkarte, enpresa edo organismoek errespetatu beharko dituzten balioak eta printzipioak, betiere ondoren zehazten den aplikazio eremuarekin bat.

1.2.- Diru laguntzei eta laguntzei aplikatu beharreko Ereduzko kode honetan ezarritako balioak eta printzipioak betez, entitateek eta enpresek, dagokien aplikazio eremuan ezarritako baldintzetan, lagundu egiten dute zuzentasunaren kultura Gipuzkoako Lurralde Historikoko elkarte eta enpresa ehun osoan barrena zabaltzen.

2.- Aplikazio eremua

2.1.- Jokabide Kode hau, bere dimentsio exogenoan, entitate eta enpresei aplikatuko zaie, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoak, aurreikusten dituen baldintzetan diru laguntzen eta laguntzen onuradun diren beste organismo guztiei bezalaxe.

2.2.- Jokabide Kode honen aplikaziotik kanpo geratzen dira 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, 2.4 artikuluan ezartzen dituen balizkoak, horiek ez baitira diru laguntzak.

2.3.- Era berean, kode honen aplikaziotik kanpo geratuko dira pertsonen zuzendutako diru laguntzak eta laguntzak, horien xedea ordain ekonomiko batzuk edo diru emate batzuk ezartzea denean, esaterako garraio, kirol, hezkuntza, kultura, ingurumen edo etxebizitzaren arloan, eskumena duen departamentuak proposaturik Gobernu Kontseiluak zehazten duen beste edozein bezalaxe.

3.- Izaera

3.1.- Jokabide Kode hau beste elementu bat izango da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Zuzentasun Sisteman, eta nahitaez betetzekoa izango da aurreko puntuan ezartzen den aplikazio eremuaren barnean dauden eta diru laguntza eta laguntzen onuradun diren entitate, enpresa eta organismo guztientzat.

3.2.- Horretarako, Kode honi atxikitzea baldintzatzat jasoko da laguntza eta diru laguntzak arautzeko oinarrietan eta horietarako deialdietan, sustapen neurri horien onuradunek nahitaez betetzeko baldintza osagarri gisa. Era berean, norgehiagokarik gabeko laguntza edo diru laguntza zuzenarako baldintzen artean jasoko da.

3.3.- Jokabide Kodea eta bertan jasotzen diren balio eta printzipioak zuzentasun arloko obligazioak dira haien aplikazio eremuaren mende dauden laguntzen edo diru laguntzen onuradun diren entitate eta enpresa edo organismoentzat. Onuradunek, kasuan kasuko gobernu organoen bitartez, zuzentasun instituzionaleko esparruz hornitutako eskakizun maila handiagoko kode osagarriak onartu ahal izango dituzte.

4.- Aurretiazko eskakizunak

4.1.- Aplikazio eremuan ezarritako baldintzetan laguntza edo diru laguntzen onuradun diren entitate, enpresa edo organismoek, funts publikoen jasotzaileak izaki, berariaz bete beharko dituzte indarrean den sistema juridikotik ondorioztatzen diren eskakizun orokorrak:

a) Bere jardueran errespetatu egin beharko dute indarrean den ordenamendu juridikoa, hori betetzea bermatzearekin batera.

b) Era berean, emandako laguntzaren edo diru laguntzaren xede den onura publikoko edo interes sozialeko jarduera sustatzera edo haren xede publikoa bultzatzera bideratu beharko dute bere jarduera laguntzak eta diru laguntzak jasotzen dituzten entitate, enpresa eta bestelako onuradunek.

c) Edonola ere, laguntzen edo diru laguntzen onuradun diren entitate, enpresa edo organismoen jarduerak, horietako zuzendaritza-organoen edota antolaketa-egituraren beraren parte diren pertsonenak zein elkartekide huts gisa edo enplegatu gisa ari direnenak, goitik behera errespetatu beharko ditu oinarritzko eskubide eta askatasun publikoak. Horrenbestez, saihestu egingo da jaiotza, arraza, etnia, genero, sexu edo sexu orientazio, erlijio edo ideologia, iritzi, desgaitasun, adin edo beste edozein baldintza edo zertzelada pertsonal edo sozialengatiko diskriminazioa eragin dezakeen jarduera oro.

4.2.- Norgehiagoka bidezko laguntzak eta diru laguntzak direnean, kasuan kasuko entitatearen edo laguntza edo diru laguntzaren onuradunaren gobernu organo eskudunek hartuko dute Jokabide Kodea betetzeko konpromisoa. Konpromiso hori laguntza edo diru laguntzarako deialdi prozeduran aurkezten den beste dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko da.

4.3.- Norgehiagokarik gabeko laguntza edo diru laguntza zuzenak jasotzen dituzten entitate, enpresa edo organismoak direnean, Ereduzko kode hau betetzeko konpromisoa baldintza gisa jasoko da bete beharrekoen artean, eta laguntza eman aurretik aurkeztu beharko da Kodearekiko atxikimendu hori.

5.- Balioak

5.1.- Aplikazio eremuan ezartzen diren baldintzetan laguntza edo diru laguntzen onuradun diren entitate, enpresa edo organismoek ondoko balioak bete beharko dituzte, berariaz:

1.- **Zuzentasuna**

Jasotzen dituzten laguntzen eta diru laguntzen ondorioz garatzen dituzten transzendentzia publikoko jardueretan zertzen dituzten eginkizunetan, entitate, enpresa eta organismo onuradunek zein, bereziki, horietako gobernu organoetako arduradunek eta langileek, portaera zuzena izan beharko dute laguntza edo diru laguntzen bitartez jasotako baliabide publikoak erabiltzen dituztenean, baliabide horiek esleitutako xedeetara bideratu dituztela justifikatuta betiere. Era berean, une oro baztertu egingo dituzte Kode honetan jasotzen diren balio eta printzipioen kontra jo dezaketen jokabide guztiak.

2.- **Zintzotasunez eta norberaren onurarekiko interesik gabe jardutea**

Laguntza edo diru laguntza publikoen onuradun diren entitate, enpresa edo organismoek, esleitutako baliabide publikoen kudeaketari eragiten dion guztian, diru laguntza edo laguntza horiek emateak izan duen interes publiko edo xede publikoa goitik behera betetzeko helburura bideratuko dituzte bere jarduerak, ez beste ezertara. Edonola ere, interes pribatu eta publikoen arteko gatazka edo gatazka itxurako oro saihestuko dute. Horren inguruko zalantzarik sortuz gero, Erakundearen Etika Batzordeari egin beharko diote kontsulta edo, bestela, uko egin beharko diote kasuan kasuko erabakia hartzeko unean edo dagokion organo edo prozeduran parte hartze zuzena edo zeharkakoa izateari. Era berean, ez dute bultzatuko inolako opari edo onurarik eskaintzea, horrek zalantzan jar dezakeenean foru sektore publikoko kargudunek edo langileek laguntzak edo diru laguntzak izapidetzeko edo erabakitzeko unean erakutsi behar duten zintzotasuna, edo laguntza edo diru laguntzei buruzko erabakia hartu behar dutenean baldintzatzaile izan daitekeenean, edo baldintzatzailea delako itxura eman dezakeenean.

3.- **Efizientzia**

Foru Administrazioetik edo haren sektore publikoko entitateetatik datozen baliabideen kudeaketak eta laguntzen eta diru laguntzen kudeaketa ekonomiko eta finantzarioak efizientzia izango dute arau. Ondasun edo baliabide publikoen erabileran xahutze mota oro baztertuko da, horien erabilera optimizatuta. Horretarako, fiskalizazio organoei berehala emango diete aipatu baliabide publikoek izan duten erabileraren berri.

4.- **Errespetua**

Laguntza edo diru laguntza publikoak jasotzen dituzten entitate, enpresa edo bestelako onuradunek, eta horietako gobernu organoetako kide, zuzendaritzako pertsonal edo enplegatuek, bere eginkizunetan ari direnean eta bere jarduera pertsonalaren beraren bitartez sustatu egingo dute balio nagusiak elkarbizitza, elkartasuna eta tolerantzia dituen gizartea sendotzea, elkarrekiko errespetua eta pluralismoa ere bultzatuta. Era berean, pertsona orok merezi dituen gizalege, zuzentasun, errespetu eta duintasunez tratatuko dituzte herritarrak, administrazio publikoen zerbitzuko langileak, zuzendaritzako pertsonala eta bestelako kargu publikodunak. Beraz, saihestu egingo dute hitz mespretxuzko edo gutxiesgarriak erabiltzea edo edozein motatako diskriminazio praktikak (genero, sinesmen, ideologia, sexu orientazio, arraza, desgaitasun edo beste edozerengatikoak) jorratzea dakarren jokabide edo jarduera mota oro.

6.- Printzipioak

6.1.- Aplikazio eremuan ezartzen diren baldintzetan laguntza edo diru laguntzen onuradun diren entitate, enpresa edo organismoek ondoko printzipioak bete beharko dituzte, berariaz:

1.- *Gardentasuna*

Laguntzen edo diru laguntzen onuradun diren entitate, enpresa edo organismoen jarduerak gardentasuna izango du arau, zentzurik zabalenean, betiere herritarren oinarritzko eskubideak errespetaturik eta legearen esparruan. Bereziki, laguntzak edo diru laguntzak jasotzen dituzten entitateek bete egin beharko dituzte arlo honetako foru arauditik ondorioztatzen diren eskakizunak, oinarritzko legediak jasotzen dituenekin batera. Gardentasunaren xedea izango da herritarrei behar beste informazio ematea, laguntzen eta diru laguntzen onuradun diren entitate, enpresa edo bestelako organismoek foru baliabide publikoei eman dieten erabilera eta xedeari buruz. Era berean, gardentasunaren beste helburuetako bat entitate horiek zuzentasunaren kulturari dagokionez ere kontuak ematea ahalbidetzea izango da. Horretarako, Kode honetan jasotzen diren balio edo printzipioekiko atxikimendua edo balio edo printzipio horiek betetzen dituztela argitaratuko dute bere web orrietan entitate horiek.

2.- *Datuak irekitzea*

Gardentasun-publizitate aktiboko politika batetik ondorioztatzen diren obligazioak betetzetik abiatuta, laguntzen edo diru laguntzen onuradun diren entitate, enpresa edo bestelako organismoek lagundu egingo dute, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera eta honek eskaturik, datu publikoak irekitzeko politika eraginkor bat abian jartzen (*Open Data*), betiere datu pertsonalak babesteari buruzko arauei jarraikiz, hain zuzen informazioa ezagutza bihurtzeko prozesu egoki eta bideragarria lortzearen, Gipuzkoako herritarren bizi-kalitatea hobetzera eta Lurralde Historikoan ekonomiaren hazkundera sustatzera begira.

3.- *Euskara sustatzea eta erabiltzea*

Laguntzen eta diru laguntzen onuradun diren entitate, enpresa eta bestelako organismoek aktiboki sustatuko dute euskararen erabilera dagokien jarduera eremuan, euskara hizkuntza koofiziala duten edo euskararen erabilera onartzen duten botere publiko edo gobernu mailekiko erakunde arteko harremanetan zein, bereziki, herritarrekiko eta elkarte edo enpresa ehunarekiko harremanetan. Era berean, saihestu egingo dute hizkuntzagatiko diskriminazioa eragin dezakeen jokabide oro.

4.- *Kohesio ekonomiko eta soziala*

Laguntzen eta diru laguntzen onuradun diren entitate, enpresa eta bestelako organismoek, bere eginkizunetan ari direnean, kohesio ekonomiko eta soziala sustatuko dute, Gipuzkoako gizartearen lurralde orekarekin batera. Arlo ekonomikoan, industria ehuna eta ekintzaileena sendotzera joko dute, lehiakortasuna bultzatzeko azpiegiturak garatzera, nazioartekotzeari merkatu berriak zabaltzera, eta gazteen, emakumeen, iraupen luzeko langabezia diren pertsonen eta desgaituen enplegua sustatzera. Arlo sozialean, gizarte desberdintasunak pixkanaka desagerraraztera zuzenduko dituzte bere jarduerak, eta gizarteratzea babestera, gizarte prestazioen sistema mantendu ahal izateko ildotik joz.

5.- *Kontuak ematea*

Laguntzen eta diru laguntzen onuradun diren entitate, enpresa eta bestelako organismoek erabateko arduraz jardungo dute, beti, jasotzen dituzten funts publikoak erabiltzeko eta bideratzeko unean. Horrek guztiak eskatzen du funts publiko horiek, bereziki, emandako diru laguntzak edo laguntzak duen xedera bideratzea. Edonola ere, onuradunek bere gain hartu beharko dituzte eskakizun horiek oker betetzearen ondorioak, Kode honetan ezarria urratzen duten jarduera edo jokabideen ondorioak bezalaxe. Erakunde horiek, eta batez ere dituzten arduradunek edo zuzendaritzako pertsonalak, kontuak eman beharko dituzte, aldian behin, Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoko entitateen aurrean.

7.- Beste jokabide eta jarduera arau osagarri batzuk

7.1.- Foru Aldunditik edo haren sektore publikoko entitateetatik datozen laguntzen edo diru laguntzen onuradun diren entitate, enpresa eta bestelako organismoek honako jokabide arau edo jarduera printzipio hauek ere segitu beharko dituzte:

a) Gardentasunez jardun beharko dute, gobernu organoei eta horiek osatzen dituzten pertsonen publizitatea emanez, hain zuzen denek jarduera horren berri izan dezaten eta, hala gertatuz gero, izan daitekeen interes gatazka oro detektatu ahal izatearren.

b) Foru Administrazioari eta haren sektore publikoko entitateei, une oro, eskatzen duten informazio argi, ulergarri eta eskuragarria ematea, kasu bakoitzeko antolaketari eta lortu nahi diren xede eta helburuei dagokienez.

c) Inolaz ere ez faltsutzea laguntzak edo diru laguntzak kudeatzeko edo fiskalizatzeko prozesuetan Foru Administrazioari eta haren sektore publikoko entitateei emandako informazioa edo dokumentazioa.

d) Foru sektore publikoko kargudunak edo langileak ez jartzea interes gatazkak sor ditzaketen egoeretan.

e) Informazio egiazko, oso, garrantzitsu eta eguneratua bermatzea.

f) Betiere baztertzea informazioa edo erabakiak lortzeko unean zintzotasunaren arrastotik urrundutako bideak edo Kode honetan jasotako balio eta printzipioak urra ditzaketenak jorratzea.

g) Bere jardueran ari direnean, eta jasotako laguntzaren edo diru laguntzaren ondorioz, ezagutzen duten informazio konfidentzialari zabalkunderik ez ematea.

h) Zaintzea laguntzaren edo diru laguntzaren onuraduna den entitate edo enpresa edo organismoaren zerbitzuko zuzendaritzako pertsona ez egotea inolako bateraezintasunen mendean, ezta interes gatazka eraginkor edo potentzialeko inolako egoera objektibotan ere.

i) Betiere betetzea Kode honetatik eta akordio honetan jasotzen den zuzentasun esparrutik ondorioztatzen diren eskakizunak.



8.- Denboran zeharreko aplikazioa

8.1.- Jokabide Kode honek, onartu eta hurrengo bi urtean zehar, Gipuzkoako Foru Aldundiaren urteko aurrekontuetan jasotzen diren laguntza eta diru laguntza izendunak izango ditu xede, ez besterik.

8.2.- Bi urtean behin egoera aztertuko da, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta haren sektore publikoak eman edo kudeatzen dituzten beste laguntza eta diru laguntzak pixkanaka sartzea balioestearren. Gobernu Kontseiluak onartu beharko du beste laguntzak edo diru laguntzak ere sartzea.

**NORGEHIAGOKARIK GABEKO LAGUNTZAK ETA DIRU LAGUNTZAK EMATEARI BURUZKO
EBAZPENETAN JASOTZEKO KLAUSULAK**

Foru Administrazioak eta haren sektore publikoko erakundeek enpresa eta erakunde pribatuei emandako laguntzei eta diru laguntzei zein sustapen neurri horien onuradun diren beste organismoek aplikatu beharreko Jokabide Kode eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparruarekiko atxikimendua adieraztea ezinbesteko betekizuna eta baldintza da laguntza edo diru laguntza hau eman ahal izateko. Horrenbestez, <https://www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema> helbidean dagoen atxikimendu adierazpena erantsi beharko zaio aurkeztu beharreko bestelako dokumentazioari.

NORGEHIAGOKA BIDEZKO LAGUNTZAK ETA DIRU LAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRIETAN JASOTZEKO KLAUSULAK

Administrazio publikoek zertzen duten sustapen jarduera gastu publikoaren modalitate garrantzitsuetako bat da, eta hartzaile ditu erakunde pribatu edo publikoak, enpresak, gobernuz kanpoko erakundeak, eta zenbait motatako elkarte eta organismoak, besteak beste. Beraz, inork ezin du ahortzi diru laguntza eta laguntza esparru horretara bideratzen diren baliabide publikoen garrantzia, ezta horien gainean kontrola zertu beharra ere.

Laguntzei eta diru laguntzei aplikatu beharreko Zuzentasun Institutuzionalaren Esparruaren helburua da prozedura horietan parte hartzen duten foru sektore publikoko kargudun eta langile guztien funtzio publikoetan, eta laguntza edo diru laguntza horien onuradun diren entitate, enpresa edo organismoen beren jardueran, zuzentasunaren kultura garatzea eta sustatzea, bai ikuspegi endogenoa bai exogenoa jorratuta, azpiegitura etikoa egituraturik, modu eraginkorrean, gipuzkoar gizarte eredugarri baten neurritan. Horrela aurrea hartu nahi zaie Administrazio Publikoaren edo baliabide publiko horien onuradun diren entitate, enpresa edo organismoen osotasun, objektibotasun, efizientzia, gardentasun eta inpartzialtasun irudiari kalte egin diezaioketen jokabide edo jardunbide desagokiei, hain zuzen ere azken batean sendotzearen herritarrek erakunde publikoetan eta baliabide publikoen erabilera efiziente, zuzen eta duinean duten konfiantza.

Horregatik, prozedura honen zuzentasunaren berme gisa, _x_ eranskinean jasotzen da Laguntzei eta Diru Laguntzei aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Zuzentasun Institutuzionaleko Esparrua.

Jokabide Kode hau beste elementu bat izango da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Zuzentasun Sistemari, eta nahitaez betetzekoa izango da bertan ezartzen den aplikazio eremuaren barnean dauden eta diru laguntza eta laguntzen onuradun diren entitate, enpresa eta organismo guztientzat. Kodea urratuz gero, eta urraketa eragin duen jokabidearen larritasunaren arabera, laguntza edo diru laguntza baliogabetzeraino iritsi ahal izango da organo eskuduna.